



Tximistarreta plazaren etorkizuna erabaki da. Tximistarreta gunearen izena herritarren parte-hartze bidez aukeratu zen. Osteen, udalak bertako bizilagunak, jubilatuen etxeko ordezkariak, Gaztelekuan ibiltzen diren gazteak, Sasoeta-Zumaburuko ikasleak, Sasoeta-Zumaburuko gurasoek elkarteko guraso eta haurrak, Andrejoakinako Haur Eskolako haurrak, Jalgune elkarteko kideak eta ingurumenaren arloan ibiltzen diren elkarte ezberdinak batuz plazaren diseinua zein izan behar den landu dute hainbat hilabetetan. Atzo izan zen talde honen azken bilera eta dagoeneko erabakita dute nolakoa nahi duten Tximistarreta. Plazan, belarra nahi dute, zuhaitzak itzala emateko, horien azpian mahaitxo batzuk, haurrentzako jolasak, eserlekuak eta iturri gehiago. Azken bilera honetan udal arkitektoa izan da teknikoki egindako proposamenak gauzatu daitezkeen edo ez argitzeko. Alaitz Mendizabal parte hartze batzorde buruak oso positiboki baloratu du esperientzia adin guztiak herritarrek parte hartu eta behar guztiak hartu direlako kontuan. Lanak egiteko 208.000 euro ditu udalak eta dena ondo bidean, udaberrian izango da Tximistarreta berria herritar guztien gozamenerako prest.

3 UDALA

Hirigintza batzordean herritarrak

Udaletxeko udalbatzar aretoan Hirigintza sailak lehenengo bilera egin zuen asteazkenean herritarrek osatutako Aholku Kontseilua sortzeko. Honen bidez hirigintza alorreko erabakietan herritarrak parte hartu ahal izango dute aurrerantzean.

5 EUSKARA

Euskara ikasteko aukera ona eta merkea

Ikasturte berrian euskara ikastera animatzen du udalak. Horretarako bekak martxan ditu. Herrian Udak euskaltegia eta AEK Muntterin ikasteko aukera dago eta edozein dela zentroa matrikularen %75 arte berreskuratu dezake ikasleak. Bi euskaltegiaren izena emateko aukera dago.

6 KIROLA

LOKEko judo taldea denboraldi berria prestatzen

LOKE taldeko judo saila lan gogorra egiten ari da denboraldi ondo prestatzeko. Urriatik aurrera, maila desberdinetako judokak aste-bururako txapelketaz txapelketa ibiliko dira lehiatzen. Aurten iazko ibilbidea jarraituz, domina eta sari ugari eskuratzeko helburu.



ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451



gandariasuribe

ortopedia sekzioa

Farmazia
parafarmazia
ortopedia

Lasarte-Oriako
ORTOPEDIA bakarra

Iñigo de Loiola 9
20160 Lasarte - Oria
Tel.: 943 019521
farmaortopediagaur@gmail.com

RPS 65/13

Zitek

HOBETU NAHI?

Enpresaritza
Ingenieritza
Kimikak
Arkitektura

Goikale 12 behea
20160 Lasarte-Oria
www.zitek-akademia.com

Neure kabuz



Jone Miren Hernandez

Mugikortasuna, askatasuna

Mugikortasun astea ospatu zen aurreko astean. Arratsalde gutxi izan ziren baina, tarte batez aske sentitu ginen. Bereziki ostegun arratsaldean (irailak 19) Kale Nagusiko zati bat ibilgailuei itxi eta oinezkoie oparitu zitzaizena. Ez kotxerik, ez autobusik, ezta motorrik ere. Aldiz umeak korrika, jolasean, helduok beraiei begira eserita espaloietan edota asfalto gainean. Behingoz askatasuna. Ez zebrabide, ez semaforo; benetako askatasuna eta lasaitasuna kalea oinezkoena izatea da. Hau primeran islatu dute herriko haurrek dendetan ikusgai jarri dituzten marrazkietan.

Mugikortasuna giza eskubide bat omen da. Halere, egunerokotasuna oztopoz beterik dago. Zaila da benetan ibiltzea ibileraz gozatzan: zaila mugitzeko zailtasunak dituztenentzat, zaila ume txikiekin mugitzen direnentzat, zaila beste mugikortasun baten alde egiten dutenentzat (bizikletaz, patinetaz, patinez... garraiatzen direnentzat). Gidari askok, ordea, bolante aurrean sentitzen duten askatasuna goraiatzan dute. Hori entzun izan dut nire inguruan behin baino gehiagotan. Paradoxa bitxia.

Okendo plaza eta bere ingurua herriak bereganatutako espazio lasaia da, dudarik gabe. Erdigune bizi-bizia. Jolaserako, hizketarako, ospakizunetarako edota besterik gabe egoteko. Garaipena oinezkoentzat eta herriarentzat. Hiribus bezala, bidegorria bezala... Halere, oraindik ere "Mugikortasun aste" asko geratzen zaizkigulakoan nago, Lasarte-Orian edota European zehar, herriak edo hiriak hirritarrenak baino motordun ibilgailuek direlako.

Zorion agurrak



Maialen

Zorionak! Bost txokolatzeko muxu aitaxo, amaxo eta Nahiaen partez!



Ekain

Urtebete gure etxeko printzeak! Zorionak eta txokolatzeko muxuak, Amaiur, aitaxo eta amaxoren partetik.



Irati eta Haizea

Zorionak zuen lehenengo urtebetetzean aitaxo eta amaxoren partetik!



Eneko

Zorionak Eneko. 5. muxu potolo familiaren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Urbarteko auzoan Atsokabar erresidentzia frentean garaje marra bat alokatzen da. Harremanetarako, 943 364 169 (Gabriela).
- Etxea salgai Urko enparantzen, 4. pisua igogailuarekin. Etxeak 90m2 ditu, 3 logela, bi komun, egongela eta sukalde. Harremanetarako 649 035 386
- Apartamentua salgai Oriu auzoan. 43 metro karratu. Logela, sala-sukaldea, bainua, garajea eta trastelekua. Etxebiden izena emanda izatea beharrezkoa. 102.000 euro. Harremanetarako, 608 878 512.
- Garajea alokatzen da erdigunean: itxia bi autorentzat. 686 674 552
- Garajea alokatzen da Atsokabarren, Garaiokoea ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. Harremanetarako, 943 36 54 76 edo 659 021 945.

Lan-eskaria

- Erreferentziak dituen neska lan bila. Etxeko lanak egin edo haur zein pertsona adinduak zainduko litzuke. Orduka edo interna moduan. Harremanetarako, 628 272 416.
- Interna, externa modura edota orduka lan egiteko prest garbiketan edo zaintzan. Harremanetarako, 671 763 558
- Paperak dituen neska eskaintzen da orduka edo interna modura lan egiteko. Harremanetarako, 666 708 963.
- Lan bila nabil, interna, gauze, orduka lan egingo nuke. Harremanetarako, 649 907 548.
- Etxeko lanak egin edo haur zein pertsona adinduak zainduko litzuke. Asteaz zehar edo asteburuetan. Harremanetarako, 675 625 919.
- Astearte, asteazken eta ostiraletan arratsaldez lan bila nabil, zaintzaile zein garbiketa lanak egingo litzuke. Erreferentziak eta pape-

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Martin Xabier Hernandez Saldaña, irailaren 16an.
- Issur Marquez Ramos, irailaren 9an



Heriotzak

- Serafin Perez Villaciervos, irailak 25.
- Javi Lopera Fernandez, irailak 23.
- Lontxo Egia Lizaso, irailak 19.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 27	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 28	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 29	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 30	Gandarias-Urribi, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 01	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 02	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 03	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

rak ditut. Harremanetarako, 619 803 199.
• Etxean garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko litzuke interna moduan. Harremanetarako, 634 278 198.

Bestelakoa

- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakia, 943376888 / 646645445 (Maria)
- Maila eta adin guztietarako ingeleseko klaseak eskaintzen ditut. Harremanetarako zenbakia, 693 601 222.
- Betaurreko graduatuak galdu dira. Montura txikia dute eta Abend inguruan galdu nituela uste dut. Norbaitek aurkitu baditu, eskertuko nuke nirekin harremanetan jartzea. 943 370 525 edo 943 007 604.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea Ezzagire, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maitu Armuti, Aste Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

Hirigintzan herritarren parte hartzea izango da

Hirigintza batzordean herritar talde batek parte hartuko du



Hirigintza Aholku batzordearen lehenengo bilera udalbatzar aretoan burutu zen.

Udaletxeko udalbatzar aretoan Hirigintza sailak lehenengo bilera deitu zuen asteazkenean Aholku Kontseilua sortzeko asmotan. Honetan herriko hainbat elkarteetako kideek parte hartu zuten eta aurrerantzean herriko hirigintzan hartzen diren erabakietan parte izango dira.

TXINTXARRI

Udalean “esparru guztietan” parte-hartzeari garrantzia eman nahi diotela azpimarratu nahi dute, baita Hirigintzan ere. Horregatik, orain arte Tximistarreta proiektuan landutako bidea jarraitu nahi da.

Tximistarretan udal ordezkariak herritarrekin batera lan egin dute plaza denen artean diseinatzeko.

Esperientzia hori zabaltzea

da udal gobernuaren asmoa. Hau dela eta “hirigintza herritarrengana hurbiltzeko” tresna gehiago jarriko ditu martxan udalak.

Asteazkenean udalbatzar aretoan bilera egin zen herriko hainbat elkarteetako ordezkariarekin. Honen helburua Hirigintza batzordean parte hartuko duen Aholku Kontseilua sortzea zen.

Orain artean udalak jakitera eman duenez, bi aldiz deitu da bilera hau modu

zabalean baina “parte-hartze mugatua izan zuen”.

Batzorde irekia

Hemendik aurrera, auzo, kultur elkarteetako, hezkuntzako nahiz sindikatu eta beste eragileetako ordezkariak izango dira honetan parte hartuko dutenak.

Nerea Sanchez Hirigintza batzorde buruak eskatu zuen udalbatzarrean batzorde hau eratzearen aukera eta onartua izan zen.

Horrela berak gidatu zuen asteazkeneko bilera herritarrei azalduz hemendik aurrera euren parte hartzea zertan datzan. Gainontzeko alderdietako ordezkariak daude batzorde honetan baita Pablo Barrio alkatea ere.

ANIZTASUNA

Worldkafea gaur Okendon

Lasarte-Oriako Udalak Aztiker enpresaren laguntzaz “Anitzen sarea” egitasmoa jarri du martxan. Proiektu honen bitartez Lasarte-Oriako kultur aniztasuna landu eta aztertzea da asmoa. Honen barruan, gaur Worldkafa ekimena egingo da Okendo Plazan 18:00etan hasita.

Herriko jatorri eta kulturen arteko harremanez hitz egin, entzun, hausnartu nahi duen herritar guztiei gonbita egiten zaie kafe baten inguruan Okendo plazan egingo den ekintzan parte hartzea.

GAZTELEKUA

Urritik aurrera ordutegi berria

Gaztelekuak urritik aurrera ordutegi berria izango duela jakitera eman du udalak. Horrela udako hilabeteetan izandakoa utzi eta astearte eta ostiral bitartean 12:00etatik 21:30etara izango da zabalik.

Larunbatean berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:00etara. Gaztelekuak astelehen eta igandetan itxia egongo da.

UDALA

Ez ohiko udalbatzarra gaur

Ez ohiko udalbatzarra izango da gaur goizean. Honetan Foru Aldundiarekin lurralde garapenerako estrategi diseinuan gobernu eredu berri bat eratzeko laguntzeko lankidetzat hitzarmena sinatzea proposatuko du udal gobernuak eta bozkatu beharko dute gainerako alderdiek.

Horretaz gain, izen aldaketa bat proposatuko du udal gobernuak. Hain zuzen, Sozioekonomia dinamizazio batzorde informatiboa sortu eta honek gizarte zerbitzuak, immigrazioa, kooperazioa, enplegua, emakumea, ingurugiroa, merkataritza eta osasuna batzordeak bere baitan har ditzala aurrerantzean.

Azkenik, A35 Zabaleta Berri birpartzelatzeko proiektutik sortutako lur sail ezberdinen jabetza osoaren esleipenerako baldintza pleguen onespeneraren proposamena eztabaidatu beharko dute.

JOSTUNGINTZA

Jantzi tradizionalak egiteko tailerra

Ttakunek urtero arrakastaz antolatzen du jantzi tradizionalak egiteko tailerra. Aurten ikastaroa urriaren Tean, asteartean hasiko da eta astearte eta ostegunetan burutuko da Jone Artolaren gidaritzapean 15:00etatik 17:30etara Emakumeen zentro zibikoan.

Izena eman daiteke Ttakunen, kultura@ttakun.com eta 943 371448 zenbakian.

DANTZA

Erketzen entseguak urrian hasiko dira

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeek urrian hasiko dituzte entseguak. Erketz-eko Lagunak taldeak asteartean egingo ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan izango dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz txikin dantza egiteko aukera izango dutela gogoratu dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi duten herritarrek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

ZABALETA

Udazken festan sardina jana

Zabaleta elkarteak urtero legez Udazken Festa prestatu du gaur ostirala, urtaro berriari ongi etorria jai giroan emateko. Auzoko Antonio Blas plazan 20:30ean hasita Sardina afari herrikoia egingo dute.

Honetara Zabaletako bizilagunetz gain, gerturatu nahi duen herritar oro gonbidatuta dagoela gogoratu nahi izan dute elkartetik.

Maskotaren eguna Atsobakarren

Lasarte-Oriako maskotek bere egunaz gozatzeko aukera izango dute bihar, larunbata Atsobakar auzoko parkean.

Goizeko 10:30etan ekingo diote egitarauari. Horrela Galgoleku elkarteak kideekin paseoa egingo dute Okendo plazan hasi eta Kale Nagusia, Geltoki kalea, Iñigo de Loyola kalea, Pablo Mutiozabal, Hipodromo etorbideetik Atsobakarrera iristeko.

Egitasmo honen helburua antolatzaileek azpimarratu moduan, animalia hauen adopzioaren inguruan sentibilditzea da.

Behin Atsobakarrera iritsi ondoren, maila desberdinak izango dituen animalien arteko lehiaketarako izen ematea



Maskotaren eguna iragartzeko egindako kartela.

zabalduko da. Lehenengo 50 partaideentzat oparia izango da eta bestelako materiala ere banatuko da gainerako parte hartzaileen artean.

Lehiaketaren ostean, txakurren entrenamendu erakustaldia egingo da eta

bertara hurbiltzen dituzte herritarrik.

Azkenik txakurren gorotzak biltzearen garrantziaz jabeak sentibilditzeko asmoz informazioa eta poltsak banatuko dira partaide guztien artean.

Hainbat mende, hainbat oroimen

■ 1986. urtetik XVIII. mendeko etxea izan da udaletxea, orain eraikin berriak ordezkatu du

Udaletxe berria martxan da eta udaletxe zaharrean Udaltzainak, bulegoak eta udalbatzar aretoa izango dira aurrerantzean. Herritar askorentzat ordea, oroitzapenak orain arte herriko etxea izan den eraikinean geratuko dira. Ez soilik bere Udaletxe izaeragatik, baizik eta aurretik Kale Nagusiko eraikinean eskolak, Guardia Zibilak... egon zirelako besteak beste.

Maidar AZURMENDI

Lasarte-Oria udalerrri gaztea da eta independentziaren lorpenaren lekuko izango da betirako udaletxe zaharra. 1986. urtean udalerrri izan arte Hernani eta Urnietako udalen menpe zegoen Lasarte-Oria.

Bi udalek urtero auzo-alkateak izendatzen zituzten beren udalen ordezkari gisa. Hauen eskumenak mugatuak ziren eta edozein gertaera 24 orduren buruan Hernani zein Urnietako alkateari jakitera eman behar zieten. Hala nola, soldatapeko aguazil bana zegoen hauen zerbitzupean. Lasarteko auzo-alkateak Hernanik jartzen zuten.

Hau dela eta XIX. mendean bi kontzeju-etxe zeuden Lasarten bata Hernani eta bestea Urnietarena. Hauetan zentralizatzen zuten auzoko gorabeheren administrazioa.

Hernanik eraikia

Hain zuzen Hernaniko Kontzeju etxea izan zen udaletxe zaharra. XVIII. mendean, 1736. urteko uztailean erabaki zen bertan eraikitzea.

Hala ere, San Pedro aurreko etxeak, Olajaunzarraenea edo garai hartan Baroiaeneak jabea zuen Juan Antonio Artusa eta saltzeko eskaerari ezetza eman zuten.

Jabea salmenta hitzartzera deitu zuten Hernanira eta agertu ez zenez, etxearen jabetza kentzeko prozesua martxan jarri zuten. Azkenean ordainsaria adostuta ekin zioten Kontzeju etxea

eraikitzeari. Baserría eta inguruko baratzak eskuratuta.

Baserriaren orubetan bi eraikuntza egin ziren batak udaletxea eta kartzela zituena eta besteak, komentuarren aldera eta udaletxeari erantsita Artusatarren etxe berria. Honek garai bateko izena mantendu zuen Olajaunzarraenea eta Maria Antonia Aizpuruak 1788. urtean testamentuan utzi zion etxea komentuari.

Kontzeju etxea

Zabaldua, honen atzeko aldean emakumeentzat kartzela egon omen zen, beheko solairuan taberna eta hau hartzen zuen pertsona berak errentan hartzen zuen etxebizitza. Egongela auzo-alkateari utzi behar zion agintaritzako lanak bete zitzen.

Kartzela beheko solairuko gela batean zegoen kokatuta, eguraldi txarreko egunetan baserriarrek euren barazkiak arkupetan saltzen zituzten, pilota partidak eta dantzaldiak ere egiten ziren hauetan, hasiera hartan hiru eskalera jaitsi behar ziren sartzeko.

Eraikuntzaren atzean zaldientzako ukuilua zegoen. Gainera bi solairuetan, gela batzuk, tarteka alokatzen zirenak, esaterako aguazilari gela horietako bat zegokion bizitzeko. Geroago mutilen eskola jarri zuten eta irakasleentzako etxebizitza bihurtu ziren gelak.

Erabilera anitzak

Urteak aurrera zerbitzuak gehitzen joan ziren bizilagun-



Eskola kokatu zen bertan udal zerbitzuekin batera.

nak gehitzen ziren neurrian. Sarreran korreos, udaltzainak edo serenoak eta idazkariarantz lekua zegoen. Goian "Escuelas Nacionales" delakoak kokatu ziren. Neska eta mutilen gelak egon ziren, bi taldeetan banatuta haur eskola modukoa batean eta bestean ondorengo mailak.

Askok gogoratuko dute nez Don Eduardo irakasle lana egiteaz gain, praktikantea ere bazen eta Antonio Castro udaltzainaren etxeko gela batean jartzen zituen txertoak. Aipatu behar da udaltzainek baita irakasleek ere, bertan bizitzeko aukera zutela.

Horrela iritsi zen Castro familia bertara. 1955. urtean Antonio Castro udaltzaina emaztearekin ganbaran hasi zen bizitzen, ondoren, beste udaltzaina, Oiarbidek bere etxea utzi zuenean bertara jaitsi zen bikotea. 1985. urte arte egon zen bertan bizitzen familia eta urte gogorrenak

Zibilen arteko liskar eta istiluak. Hasieratik egon zen kartzela hura, kalabozo bihurtu zen. "Oso garai gogorra izan zen. Jipoiak etxetik entzuten genituen batzuetan eta aita ezin eutsi, jaitsi eta jendea ateratzeko bitartekari izaten zen. Horrek noski asko txartu zuen "bizilagunen" arteko harremana".

12-15eko taldea zen eta bertan bizi ziren. "Etxebizitza handiak izan, lau logelakoak eta bertan literatan antolatuta egiten zuten bizitza".

ETAren atentatuen ondorioz, tiroketa izan zen elizaren arkupetatik udaletxera, "tiroen aztarnak denbora askoan geratu ziren paretetan eta jendeak beldurra zuenez aurretik ere ez zen pasatzen. Nire anaia tiroketa baino momentu bat lehenago iritsi zen etxera zaborra bota-tzetik, pentsa". 1976. urte inguruan utzi zuten Guardia Zibilak herria.

Ondoren, herriko gazte talde batek okupatu zuen lehen solairua eta berehala iritsi zen Udaletxea izango zelaren erabakia.

1985. ean Udaletxe bihurtzeko hainbat konponketa egin ziren egitura mantenduz. Lan horietan Olajaunzarraeneaz baliatu behar izan zuten udalak hainbat zerbitzu bertan kokatzeko.



ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
 943 37 17 33- 610 45 93 45

Gipuzkoako erakusketarik zabalena 500m²-tan

josta mendi
 Teikia

- Haur kotxeak
- Paseoko aulkiak
- Sehaskak
- Tronak
- Autorako aulkiak
- Bainerak
- Biberioiak
- Osagarriak

www.jostamendi.com

Easo 51 20006 Donosti • Tel.: 943 470244''
 Artaleku 3 20300 Irun • Tel.: 943 638223

Euskara denon eskura

Euskaltegietan taldeak osatzeko lekua dago eta euskara ikastera animatzen dituzte herritarrak

Ikasturte berrian euskara ikastera animatu nahi du udalak. Horretarako bekak martxan ditu "Euskara ikasteko aukera Ona eta Merkea" izenarekin. Herriari Udak euskaltegian eta AEK Muntterin ikasteko aukera dago eta edozein dela zentroa matrikularen %75 arte eskuratu dezake ikasleak laguntza modura. Herriko bi euskaltegietan oraindik izena emateko aukera dago.

Maidar AZURMENDI

Euskara ikasteko aukera Ona eta Merkea" lelopean jarri ditu martxan udalak euskara ikasteko diru laguntzak. Beka hauek eskuratu ahal izango dituzte homologatutako edozein euskaltegian matrikula eginda duten herritarrak.

Baldintzak, asistentzia %90ekoa izan beharko da ikasturtean, Lasarte-Oriako udalarekin zorrik ez izatea eta ikasturtea amaitezakoan 16 urteak beteta izatea.

%40 eta %75 bitarteko diru laguntza jasoko dute herritarrak baldintzen arabera. Horrela udalak hainbat talde finkatu ditu. Edozein herritarrentzat, Lasarte-Orian erroldatutakoa eta aurreko

baldintzak betetzen dituenak, matrikularen %40 -ko laguntza jasotzeko aukera izango du. Gurasoek, aurreko baldintzak beteta, 5 urte edo gutxiagoko haurra badute, %75 arteko beka eskuratu ahal izango dute. Herriko enpresaren batean lan egiten duten langileek ordea, aurrez aipatutako baldintzak beteta %75 artekoa ere izango dute eskuragarri. Aukera bera izango dute eskola orduz kanpoko begirale bezala ibiltzen diren lasarteoriarrek.

Laguntza hauekin Udaleko euskara batzordetik herritarrak animatu nahi dituzte euskara ikastera.

Udal euskaltegian aukera

Udal euskaltegian 23an, astelehenean, ikasturtearekin hasi



Buruntzaldeko euskaltegi eta udal ordezkariak matrikulazio kanpaina aurkeztu zuten.

ziren arren, taldeak osatzeko aukera dago maila guztietan bere zuzendariak azaldu moduan eta zalantzan dauden herritar horiek animatu nahi dituzte gerturatu eta izena eman dezaten. "Matrikula epea gainditu da baina maila guztietan taldeak osatzeko aukera dugu oraindik beraz animatu daitezela herritarrak, talde anitzak dira, adin guztietako jendea dago

eta momentuz emakume gehiago dago beraz ea mutilak animatzen diren".

Udal euskaltegiak eskaintzen duen ordutegia aurreko ikasturteetako da, goizean 9:00etatik 11:30 bitartean, 15:00etatik 17:30era eta 18:30etik 21:00ra.

Autoikaskuntzarako aukera ere badu HABEK. Honetan ikasleak 190 ordu egin behar ditu, ordenagailuaren aurrean

156 ordu eta 26 orduko mintzapraktika, "gure ikasleek gehiago egiten dituzte euskaltegira etorri eta klasetan integratzen direlako", horretaz gain 8 ordu tutoretzarako aurreikusten dira baina ikaslearen beharretara egokitzen dituzte. Ikaslearen helburua titulua ateratzea bada, lan gehiago ere ematen zaiola dio euskaltegi zuzendariak.

Muntterin azken eguna

AEK Muntterin euskaltegian berriz, gaur izango da izena emateko azken eguna baina beti ere, astelehenean aurrera taldeak osatzeko aukera izango dela dio bere arduradunak.

Eskaintza zabala du ordutegietan eta maila guztiak eskaintzen dira. AEK-k ere online ikastaroak martxan ditu euskara euren kabuz ikasi edota hobetu nahi dutenentzat.

Beraz, izena emateko epea gainditu dutelakoan euskara ikastea datorren ikasturterako utzi duten herritarrak aitzakiarik ez dute herriko euskaltegiara gerturatu eta euskara ikasten hasteko.

Oinatz, Ikazkinen munduan barrena

Oinatz taldeak ikasturteari hasiera emango dio urriaren 12an. Oraingoan, ikazkinen mundua ezagutuko du euskal geografia eta historian barrena murgiltzen den taldeak. Hain zuzen ere, Atauen dagoen Lizarrustiko Parketxera egingo dute bidaia.

Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Sagardotegi kaletik Lizarrustira. Bertan Aralar Parke Naturalean ikazkintza eta basogintza historian zehar nolakoa izan den ezagutuko dute eta ikazkinek garai batean egiten zuten txondorra zuzenean ikusiko dute ere.

Txondorra irailaren 12an piztu zen eta urriaren 12an, ikatza aterako dute.

Egitarau berezia

Hau ospatzeko egitarau berezia prestatu da eta Oinatz taldeko lagunek honekin bat egingo dute.

Honela, goizeko 10:30ean hasita, zailtasun baxuko mendi ibilaldi gidatua izango da Akerretaraino. Honetan txondor-plazak, pago motzak eta basoaren erabilera zein izan den ikusiko dute.

Ibilbidea egin nahi ez duenak, Lasarte-Oriako Zero

Sette Akordeo orkestraren emanaldia entzun ahalko du.

Bazkaria ere antolatuta da, "Ikazkin-menua", hau da, baratxuri zopa, babarrunak eta mamia.

Bazkal ostean, Aitor Sarriegi eta Eneko Lazko bertsolariaren saioaz gozatu edo Barandiaran museora joateko aukera izango da.

Izena ematea

Izena ematea Ttakun kultur elkartearen egin behar da, urriaren 8a, osteguna baino lehen.

Autobusaren prezioa 10 eurokoa da eta bazkarian



Lizarrustiko Parketxean garai bateko ikatz txondorra ikusiko dute Oinatz-eko lagunek.

parte hartu nahi duenak beste 15 euro ordainduko ditu.

Antolatzaileek ohart arazi dute, izena ematearen arabera, joan-etorria autobusez edo kotxez egingo dela.

Bestalde, hurrengo irteera Euskal Jaiak egunean, urriaren 19an, izango dela aurreratu dute. Hau Lasarte-Orian dagoen Benedika mendira izango da.



ALBOKA
Abesbatza
LASARTE-ORIA

Abesten ikasi nahi al duzu?

Abestea, bidaiatzea eta ekintzetan parte hartzea gustuko?

Zatoz gure entsegu batera!

Ez duzu musika ezagutarik izan behar

Entseguak **astelehen eta ostegunetan** dira Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalean, **20:00etatik 21:30era**.

Informazio gehiago www.albokaabesbatza.com-en edo idatzi alboka@albokabesbatza.com helbidean.



Bidaia, kontzertuak, elkartrukeak eta bereziki abesten ongi pasatzea

Gazteak ere anima zaitetzte!

5 eta 14 urte arteko haur eta gazteei zuzendua



Lehen entsegua
urriaren 1ean, 18:00etan

ALBOKA
TXIKI

Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalean
Zatoz eta proba ezazu!!!

Agenda

Larunbata 28, 10:30etik 14:00era, Atsobakar parkea



Maskoten ohorezko eguna

Maskotaren eguna ospatuko da Lasarte-Orian. Maskotak protagonista nagusi izango diren ekimen ugari egongo dira Galgoleku elkarteko kideen laguntzarekin, Okendo plazatik Atsobakarrera txakurrekin paseoa eta maskoten lehiaketa izango dira ekintza nagusiak. Cani Sapiens-ek txakur obediencia erakusketa ere egingo du.

BIYAK BAT ELKARTEA

Asteartea 1-Igandea 6

Adinekoen omenaldi astea dela eta, hainbat ekitaldi izango dira Biyak Bat elkartearen: bakarriketak, mahai eta mugimendu jokoak, magoa...

Usurbil

V. Topa eszenika

SUTEGI ARETOA

Ostirala 27, 20:15ean

Aixaixa taldeak "Arroxalik ere, amets egiten du" pieza laburra eskainiko du eta Bonbereneako antzerki taldeak, berriz, "Katiuskun erreinua" lana. Sarrera, 5 euro.

Larunbata 28, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako hainbat taldeek "Dantzaz-Blai" ikuskizuna eskainiko dute. Ondoren, Miren Gaztañagak "STEREO" lana aurkeztuko du. Sarrera, 5 euro.

Larunbata 28, 22:15ean

Aldatzen laguntzen taldeak "Eskorbuto bat, berriz ere!" 15 minutuko pieza eskainiko du eta jarraian, Oh, my god! taldearen "Zer duzu, Amy?" lana ikus-terko aukera izango da. Sarrera, 5 euro.



Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 27, 21:00etatik aurrera

"Syr Trifulca Posse"-ren eskutik Hipfunk-breaks saioaz gozatzeko aukera ederra.

Larunbata 28, 21:00etatik aurrera

"Inoren Eron Ni" eta "El Desvan del Macho" taldeek rock doinuak eskainiko dituzte. Ostean, "Man in the attick" eta "Prest dejota" dj-ek elektrojazzrock saioa eskainiko dute. Sarrera, 5 euro.



Udazken festa

ANTONIO BLAS PLAZA

Ostirala 27, 20:30ean

Zabaleta auzoko lagunek udazkenari ongi etorria egingo diote Udazken festarekin. Sardin janaz gozatzeko aukera paregabea.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Iraila amaiera arte

Ion Benitez eta Unai Azkarateren diseinu grafiko eta collage-en erakusketa ikusgai dago.



V. Topa eszenika

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 5, 20:00etan

Metrokoadroka Kolektiboak "Poza: zergatik dantzaten dute bosniarrek?" antzezlan eskainiko du.

Sarrera, 5 euro.

Bestelakoa

OKENDO PLAZA

Ostirala 27, 18:00etan

Lasarte-Oriako Udalak Worldkafe ekimena antolatuko du. Kultura desberdinetako herritarrek haien bizipenak eta iritziak emateko aukera izango dute.

Añorga

V. Topa eszenika

ANTXON AYESTARAN KULTUR ETXEA

Ostirala 4, 22:30ean

Abarka Antzerki taldeak "Biba zorrien izurritie!" antzezlan eskainiko dute. Sarrera, 5 euro.

Herritarren txokoa

Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, irailaren 27an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan irailaren 30ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Alboka Abesbatza eta Alboka Txiki-ren entseguak

Alboka abesbatzak jakin arazten du Alboka Txiki abesbatzak urriaren 1ean, asteartea, arratsaldeko 18:00etan, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan hasiko dituztela entseguak.

Herriko abesbatzak 5 eta 16 urte arteko haur eta gaztetxoak animatu nahi ditu entsegetara hurbildu eta probatzera. Ez da beharrezkoa musika ezagutzarik izatea.

Bestalde, helduen abesbatzak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara ditu entseguak. Anima zaitzete!

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatibak janariaren kontsumo arduratsu, bertakoa eta ekologikoa sustatu nahi du.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Galdutako arropa

Sorgin Dantzako entsegutan Landaberri BHI-n jendeak ahaztutako hainbat arropa jaso da. Hauek guztiak Ttakuneko bulegoan dago beraz galdutakoak harrera orduan pasa daitezke jasotzera.

Hemeroteka

Duela 1079 ale



Lasarte-Oriako segak bere lekua izan zuten. Hainbat izan dira segan ibilitako herritarrek eta horregatik, 1995 urtean, Joxe Agote segalari ohialekin solasaldi ederra izan zuten TXINTXARRI-ko lankideek.

Solasaldi honetan Lasarte-Oriako Zumau irla 1954. urtean Eleuterio Tapias asteasuarekin egindako apustuaz hitz egiten du.

Desafioa Michelin lantegian hasi zen. Bertan egiten zuten lan Joxe Agote eta Tapiaren anaiek. Gure Etxea tabernan apustuaren nondik norakoak finkatu zituzten.

Apustu egunean Zumau irlan lagun asko bildu zirela gogoratzen zuten, nahiz eta orduko 10 pezeta ordaindu behar. Ordu beteko saioa izan zen eta Tapiak irabazi zuen. Asteasuarrak 2.284 kilo ebaki zituen, lasarteoriarrek aldiz, 121 kilo gutxiago.

Honen ostean, hilabete batzuk entrentzen egon zen, baina areriorik atera ez zenez segalariak erretiroa hartzea erabaki zuen.

Segaren etorkizunaz, "ez dago leku aproposik [...] ematen dituzten sariak txikiak dira kirol honek eskatzen duen sakrifizioa nolabait ordaintzeko [...] gazteak sega mundua alde batera uzten joan dira" zioen.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Vanessa Velez PP-ko Zinegotzia

“PP-koak isolatuta egon gara”

Egoera politiko berrian herriaren egunerokotasunean murgildu daitekela dio Velezek

Udaletxean PP-ko zinegotzi bakarra da Vanessa Velez. Euskalduna da eta udalbatzarretan euskara erabiltzen du normaltasunez bere mintzalditan. Hizkuntza eta politika ez direla nahastu behar sutsuki defendatzen du. Bere lanaz eta alderdian dauden ustelkeria kasuez mintzatu gara.

Maider AZURMENDI

Vanessa Velez PP-ko zinegotzi bakarra da. Bigarren legealdia da herrian eta eroso sentitzen dela dio. Udalbatzarretan euskaraz entzutea arraroa egin zaie askori. Ideologia politikoak hizkuntzarekin zerikusirik ez duela defendatzen du.

Eroso zaude udalean?

Nahiko eroso nago. Egoera politiko berriarekin askoz hobeto. Aurretik Andoainen egon nintzen eta oso gogorra izan zen garai hura.

Lasarte-Orian beti nahiko ondo egon naiz, legealdi honetan ere hasiera ez zen erraza izan. Bilduk nire ideologiagatik, beste jarrera bat espero zuen niregandik adibidez. Politikoki aldea oso nabaria da baina herritarrek nahi dute gu batera lanean ikustea. Azkenean herrigintzan errazagoa da adostasunerako puntuak topatzea.

Lan giro ona duzue?

Kostatu zaigu, landu dugu esan bezala eta orain bai. Bakoitzak bere ikuspuntuak defendatzen ditu gainontzekoen errespetuarekin eta hori niretzat garrantzitsua da.

Plenoetan beti euskaraz egiten duzu.

Ez dakit zergatik harrizten den jendea. Nire ustez urte askotan euskara gaizki erabili da. Beti defendatu dut euskara denona dela, dakitenena baita ez dakitenena ere eta hizkuntza ez dagokio ideolo-

gia bati. Belaunaldi berriek normaltasunez egiten dute euskaraz eta hor dago abiapuntua. Normaltasun horretan, euskal hiztunen artean ideologia guztiak dute lekua.

Niretzat Korrikan parte hartu ahal izatea gauza handia izan da adibidez. Batetik jaialdi jendetsuetan egotea pentsaezina zelako duela bi urte eta bestetik, euskararen jaietan bat gehiago nintzelako.

Pena hartu nuen, etxean Txintxarrik egindako bideoa ikusi eta alkatea, ibilbidearen beste momentu batean, beste aldarrikapen politikoak egiten ikustea. Ez zitzaizkidan gustatu, euskara aldarrikapen horietatik kanpo geratu behar da.

Herritarrek zure parte hartzea baloratu zuten?

Jende askok komentatu zidan. Herritarrek poliki-poliki konturatuko dira presentetago gaudela, normalak gara.

Egon den egoera politikoarekin, ETArekin mehatxarengatik, PP-koak isolatuta egon gara. Ez da bakarrik beldurra genuela, nolabait egoerak behartuta, bizkartzainak etab. guk ezin genuen herriaren egunerokoa parte aktibo izan, herriko festetako ekintzetan normaltasunez parte hartu adibidez. Garai berri honetan esan bezala, jende askok ikusiko du normalak gara, ez gara Espainiatik etorri eta udaletxeetan sartu, hemengoak gara eta euskaldun sentitzen gara.

Euskaldun berria zara?

16 urte bete arte B ereduan

ikasit nuen. Ondoren batxilergo internazionala egin nuen eta unibertsitatean gaztelera ikasi nuen Enpresaritz eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ondoren. Duela zazpi urte Hizkuntza Eskolan izena eman nuen, azken azterketa egiteko garaian, haurdun nengoen, alaba aurreratu zitzaidan eta ezin izan nintzen aurkeztu.

Iaz B2 mailara aurkeztu eta gaingitu nuen eta aurrean C1 mailarekin saiatu naiz baina ez dut pasa. Hitz egiteko zailtasun batzuk ditut baina ondo moldatzen naizela uste dut, azterketetan, idatzian batez ere, eskatzen dituzten gauzeekin harrizten naiz batzuetan, gainera hasi nintzenetik Euskaltzaindiak gauzak aldatu ditu eta lehen zuzena zena, orain ez!

Etxean euskaraz egiten duzu?

Seme-alabekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz. Senarrak dena ulertzen du baina orain hasi da serio ikasten.

Zure blogean bi hizkuntzetan idazten duzu.

Euskaraz idaztea animatzen naiz bai baina beldurra ematen dit. Askotan begirutzen dut idatzitakoa, bueltak ematen dizkiot testuari, akatsen beldur naiz... Egia da ere bloga pertsonala dela. Lagun baten bitartez hasi nintzen eta oso gustora egiten dudana gauza bat da.

Zer da legealdian gauzatu ikusi nahiko zenukeena?

Nire asmoa, kontutan izanda oposizioan eta PP-ko zinegotzi bakarra naizela, hasieratik elkarlana izan da. Herritarren onerako direnak egiten saiatzen naiz, adibidez aurrekontu proiektuari hainbat

emendakiri aurkeztu eta beste alderdiek onartu zituzten. Hori da egin beharreko lana.

Horretaz gain, bizi dugun egoera ekonomikoan zaila dauka udaletxeak, baina langabeziaren aurrean zerbait egin beharko genuke. Jendeak uste du udaletxeak berak kontratatu behar dituela langileak baina ez da horrela. Adibidez Michelin II proiektua, hotela, niretzako bi proiektu horiek arazoari nolabaiteko irtenbidea ematen saiatzen ziren, ez ziren asko baina lanpostu batzuk sortuko ziren aurrera atera izan balira.

Udaletxeak herrian enpresak zabaltzeko erraztasunak eskaintzea ondo ikusten dut. Gutxi badira ere, sor ditzaketen lanpostuak oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit. Bestalde, egoera honetan Gizarte Zerbitzu on batzuk edukitzea lehentasuna da.

Udaletxe berria zabaldu da

Bai eta Gaztelekua ere. Legealdi hasieran, lehenengo urtean aurrekontuak egiteko atzerapenak egotea ulergarria izan zen. Talde berria, esperientziarik gabekoa, baina bigarren urtean

asko atzeratu dira aurrekontuak.

Epeak bete behar dira udalaren egunerokoa arazorik gabe joan dadin.

Zinegotzi ezezagunena zarena sentitzen duzu?

Bai, normala da, ez naiz herrian bizi. Orain arteko egoeragatik ez ditugu gure bozkatzaileak ezagutzen, ez daukagu jendea zerrendak osatzeko. Aldatuko da.

Hurrengo hauteskundeetan zer espero duzu?

Aurrekoetan emaitzak onak izan ziren baina ustelkeria kasuek min handia egingo dute, ez soilik PP-n. Jendeak duen pertzepzioa da politiko guztiak lapurrak gara eta soluzioa baino arazoa gara.

Ustelkeria kasuekin, Madril-dik gertu sentitzen zara?

Gu gara egia jakin nahi dugun lehenengoak. Niretzako hemen bizi dugun egoera oso desberdina da, ez daukagu ia dirurik. Nik nire telefonoa ordaintzen dut, nire ordenagailua erabiltzen dut lan egiteko, alderdiaren egoitzan makinak daude eta guk ordaintzen dugu kafea. Esaten diren dieta horiek guretzako oso oso urritu daude, niretzat zientzia fikzioa da.



Bideo Lagunak
Tien 21E
Etxekotesna elektrikoetan

AURREZPEN astea
EET-etan (Etxekotesna elektriko txikiak)
Irailaren 23tik 28ra

GAUR TA BIHAR AZKEN EGUNAK

27 28

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

Me gusta

-25% -10% -20% -15% -20% -25% -20% -15% -25%